

Aurten ere siesta izorratzeko asmoz gatozkizue! DADen Mus Txapelketa hemen da: Bat eta Hiru BGAE/EPVen titularrak, irmo eta potentzialki lekualdaturikoak, okupatuak, aurretik erretiratuak eta pentsiodunak, jokalaria, gezurtiak, hasiberri zortedunak, pirata beteranoak, Tamariz-en modukoak, kaiman eta kameleoiak, irabazten zaleak eta galtzen profesionalak, mahai-tapizaren monarkikoak eta Gin Tonic-en errepublikarrak, porrot egindakoan alaiak, garaipenean neurritsuak... DADeko adiskide maiteak, hasi prestatzen engainuaren jokoan dituzuen trebetasunak, datorren maiatzean hordagoak, enbidoak eta harropuzkeriak botako ditugu-eta udaberriko arratsaldeetan.

Maiatzaren 2an (egun berezia gero!) hasiko gara hortzak erakusten (baina irribarrez), eta amaiera hil bereko 27an emango diogu, finalak jokatu, lagunarteko afaria egin eta txapelketa lasterra jokatu ondoren (gero eta jarraitzaile eta sari gehiagorekin). Era eta mota guztietako eginbeharrek lehiaketa arruntean parte hartzea eragozten badizute, hori ez da oztopo azken otordurako eta ondorengo KO lehiaketarako izena emateko. Lagunarekin etortzen bazara ondo, eta bestela, guk egingo dugu bitartekari-lana.

Inguruko gorabehera eta ziurgabetasunaren erdian, aukera berezia izango dugu elkartzeko (batzuk ikusi ere ez baititugu egiten eta beste batzuk oso lanpeturik gabiltza), amorratzeko, barre egiteko, trago bat hartzeko, zorion andereaz gogoratzeko eta, gainera... musean jokatzeko. Bihotz-bihotzez animatzen zaituztegu bertan parte hartzera!

Txapelketan ahalik eta bazkiderik gehienek parte hartu ahal izan dezaten, 9 eskualde pentsatu dira (eta hartu parte ongien datorkizun lekuan, ez nahitaez lan egiten duzun horretan); eskualde-buruak honako herri hauek izango dira: AZPEITIA, BEASAIN, EIBAR, IRUN, ARRASATE, ERREENTERIA, DONOSTIA, TOLOSA eta ZARAUTZ.

Esan behar dugu, zonalde horiek benetan eratu ahal izateko, ezinbestekoa dela zonalde bakoitzean 5 bikotek gutxienez izena ematea, beren taldea osatzeko helburuarekin. Bestela, hau da, gutxieneko bikote kopuru hori ez bada biltzen, eskualde horretan izena emandakoak beraingandik hurbilen dagoen eskualdean sorturiko taldera edo taldeetara igaroko dira.

Txapelketa maiatzaren 2an hasiko da eta 27an amaituko da; itzuli bakarreko liga-sistemaz jokatu da eta arautuko duten oinarriak bere garaian jakinaraziko zaizkie bertan parte hartzen duten guztiei.

Dagokion garaian jakinaraziko zaizkizue partiden lekua, eguna eta ordua. Ordutegiari dagokionez, noski, lan-zirkunstantziak kontuan hartuko dira eta horietara egokituko gara.

CAMPEONATO DE MUS – DAD - 2014

Parte hartzeko interesa baldin baduzu, bidali mezu elektronikoa Mixel Alonso-ri (mitxelalonso@kutxabank.es) honako datu hauek emanez:

- ▶ Bikotearen izen-abizenak
- ▶ Bulego edo Sailaren zenbakia, eta lan-egoera (aurretik erretiratua, erretiratua edo antzekoak)
- ▶ Harremanetarako telefonoak.
- ▶ Zein eskualdetan parte hartu nahi den.
- ▶ Jakinarazpenak jasotzeko helbide elektronikoa eta telefono mugikorra.

Oso garrantzitsua da telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa ematea, jkkjakinarazpen guztiak bide hauetatik egingo dizkizuegu-eta (batez ere, posta elektronikoz).

Parte hartzeko interesa baldin baduzu eta bikoterik ez baduzu, bidali zeure izena eta saiatuko gara bikote-kidea bilatzen.

Izena emateko azken eguna: apirilaren 27a (mesedez, ez utzi azken egunerako)

Halaber, gogorarazten dizuegu Txapelketa honetako 2 bikote finalistak DAD-Kutxaren ordezkari izango direla Kutxen arteko ACRECA XXX Mus Txapelketan; Murtzian izango da oraindik zehaztu gabeko egunetan, baina irailaren 2. hamabostaldian-edo.

Txapelketarekin zerikusia duen edozein kontsulta egiteko, jo ezazue Mitxel Alonsorengana, zehazki bere helbide elektronikora (mitxelalonso@kutxabank.es).

Antolakuntza